OBRA KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ARAUTUKO DUEN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA

ELGOIBARKO SAN FRANTZISKO KALEAREN ETA URAZANDI AUZOAREN ARTEKO IGOGAILU PUBLIKOA ETA PASABIDE IRISGARRIAK (I. FASEA) EGITEKO EXEKUXIO PROIEKTUARI DAGOZKION OBRAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen bidez burutuko den kontratuaren xedea izango da, Elgoibarren, San Frantzisko kalearen eta Urazandi auzoaren arteko irisgarritasuna hobetzeko, igogailu publikoa eta pasabide irisgarriak eraikitzeko proiektuari dagozkion obrak" exekutatzea, INJELAN, SLk, idatzi duen proiektuaren eta espedientean ageri den dokumentazio teknikoaren arabera. Agiri horiek guztiek kontratuzko izaera izango dute.

Obra egiteko, baloratutako memoria eta plegu honi erantsitako planoak izango dira kontuan. Dokumentu guztiek kontratuzko izaera edukiko dute, eta esleipendunak, adostasuna adierazteko, onartu egin beharko du hori, kontratua formalizatzeko egintzan.

2.- AURREKONTUA

Aurrekontua (BEZa kenduta): 943.505,35 €
BEZa (%21): 198.136,12 €
Prezioa BEZa barne: 1.141.641,47 €
Kontratuaren balio zenbatetsia: 1.141.641,47 €

Lizitaziogileek oinarrizko aurrekontua hobetu ahal izango dute. Aurkezten diren eskaintzek ezin izango dute kontratuaren prezioa gainditu.

3.- EXEKUZIO EPEA

Obren exekuzio epea hamar (10) hilabetekoa izango da, eta epe partzialak, laneko programa onartzen denean, epe partzial gisa finkatzen direnak izango dira.

Zuinketa egiaztatzeko akta formalizatzen den egunetik

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS QUE REGIRÁN EL CONTRATO DE OBRAS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

OBRAS CORRESPONDIENTES AL PROYECTO DE MEJORA DE ACCESIBILIDAD: ASCENSOR PÚBLICO Y PASARELAS ACCESIBLES ENTRE LA CALLE SAN FRANTZISKO Y EL BARRIO URAZANDI EN ELGOIBAR (FASE I)

1.- OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la ejecución de las obras correspondientes al proyecto de ejecución de las obras de mejora de accesibilidad: ascensor público y pasarelas accesibles entre la calle San Frantzisko y el barrio Urazandi en Elgoibar de conformidad con el proyecto redactado por INJELAN, SL y la documentación técnica que figura en el expediente, que tendrán carácter contractual

La obra se ejecutará según la memoria valorada y planos que se adjuntan al presente pliego, cuyo conjunto de documentos tendrá carácter contractual, y deberá ser asumido por el adjudicatario en prueba de conformidad en el acto de formalización del contrato.

2.- PRESUPUESTO

Presupuesto (IVA excluido): 943.505,35 €
IVA (21%): 198.136,12 €
Precio, IVA incluido: 1.141.641,47 €
Valor estimado del contrato: 1.141.641,47 €

El presupuesto base podrá ser mejorado por los licitadores. El precio del contrato no podrá ser rebasado por las ofertas que se presenten.

3.- PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo de ejecución de las obras será de diez (10) meses, siendo los plazos parciales los que se fijen como tales en la aprobación del programa de trabajo.

El cómputo del plazo se iniciará desde el día

aurrera hasiko da exekuzio epea., betiere, Administrazioak obra hasteko baimena ematen baldin badu.

siguiente al de la fecha del acta de comprobación del replanteo, si la Administración autoriza el inicio de la obra.

Laneko programa onartzen denean finkatzen diren epe partzialak, eta onarpenean zehazten diren ondorioak ere bai, kontratuaren osagaitzat hartuko dira, beharrezkoak diren lege ondorioetarako.

Los plazos parciales que se fijen en la aprobación del programa de trabajo, con los efectos que en la aprobación se determinen, se entenderán integrantes del contrato a los efectos legales pertinentes.

Epe partzialak Jabetzak edo Obra Zuzendaritzak moldatu edo aldatu ditzakete, zuinketa egiaztatzeko akta formalizatu aurretik edota obrak diharduen bitartean.

Los plazos parciales podrán ser ajustados o modificados por la Propiedad o por la Dirección Facultativa, previo al acta de comprobación del replanteo y/o durante la ejecución de las obras.

4. PROIEKTUAREN EZAUGARRIAK

(Ikusi proiektua)

4. CARACTERISTICAS DEL PROYECTO

(Ver proyecto)

4.1. AURRETIAZKO LANAK

Zuinketa egiaztatzeko akta formalizatu aurretik, identifikazio lanak egingo dira, gaur egun dauden sareak ezagutuz, altxaera topografikoa eta antzeko lanak eginez, etab., obra zuzendaritzaren oharrak jarraituz.

4.1. ACTUACIONES PREVIAS

Previo al acta de comprobación del replanteo, se deberán realizar los trabajos de identificación de redes existentes, levantamiento topográfico y trabajos similares, etc., según indicaciones de la dirección facultativa.

4.2. OBRA AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA

Obrak behin bukatuta, "as built" planoak egingo dira eta Udalari eman. Bertan jasoko dira plazako sare definitiboak, bukaerako egoeraren altxaera topografikoa arketen kokapena eta sarea markatuz, kokatutako hiri altzariak azalduz.

4.2. DOCUMENTACIÓN FIN DE OBRA

Una vez terminadas las obras, se realizarán y entregarán al Ayuntamiento los planos "as built" con las redes definitivas de la plaza, levantamiento topográfico con las nuevas rasantes indicando además la ubicación e identificación de arquetas.

5. BALORAZIOA EGITEKO IRIZPIDEAK

- Prezioa: Gehienez, 58 puntu.
- Txosten teknikoa eta lanen programa: Gehienez, 30 puntu
- Igogailuaren doako mantentze integrala: Gehienez, 8 puntu
- Bermerako epea luzatzea: Gehienez, 4 puntu.

5. CRITERIOS DE VALORACIÓN

- Precio: Hasta 58 puntos.
- Memoria técnica y programa de trabajo Hasta 30 puntos
- Mantenimiento integral gratuito del ascensor: Hasta 8 puntos
- Ampliación plazo de garantía: Hasta 4 puntos.

6.- OBRARI ATXIKITAKO LANGILE TEKNIKOAK

6.- PERSONAL TÉCNICO ASIGNADO A LA

OBRA

Plegu honen xede den obrarentzat izendatuko diren langile teknikoek Obra Buru bat izango dute, obraren eraikitzailearen ordezkari tekniko izango dena.

El personal técnico asignado a la obra objeto del pliego contará con un jefe de Obra que asumirá la representación técnica del constructor de la obra.

Obra Burua izango da, Udalak izendatu duen gerentziaren aurrean, kontratistak izango duen ordezkaria, eta ondorioz, bien arteko komunikazio formala bideratuko duena. Obra Buruaren presentzia etengabekoa izan beharko da, eta une oro, Obra Zuzendaritzaren eta Udalak izendatu duen gerentziaren esanetara egon beharko da.

El jefe de Obra será el representante del contratista frente a la gerencia designada por el Ayuntamiento y, en consecuencia, cauce de comunicación formal entre ambos. Su presencia deberá ser continuada, debiendo estar en todo momento a disposición de la Dirección de Obra y de la gerencia designada por el Ayuntamiento.

Ezinbestean, behar bezala justifikatutako arrazoiak izan beharko dira kontraturako izendatu diren langile teknikoak ordezkatzeko, eta betiere, horiek ordezkatu nahi diren langileek dituzten ezaugarri berberak izan beharko dituzte. Nolanahi ere, Udalak, aldez aurretik, ordezkapen hori egiteko baimena eman beharko du.

Únicamente cabe la sustitución del personal técnico asignado al contrato por causas debidamente justificadas, y siempre que el personal nuevo a incorporar cumpla con las mismas características del personal que se proponga sustituir. En todo caso, la sustitución deberá ser autorizada previamente por el Ayuntamiento.

7.- OBRA BISITAK

Obra bisitak, gutxienez, astean behin egingo dira. eta bisita horietara, ezinbestean, Obra Zuzendaritzako teknikariak eta Obra Burua bertaratu beharko dira. Noizean behin, Udalak izendatutako gerentziaren kideren bat ere joango da.

7.- VISITAS DE OBRA

Las visitas de obra se realizarán al menos una vez a la semana, y a las mismas acudirán obligatoriamente los técnicos de la Dirección de Obra y el jefe de Obra. Periódicamente acudirá algún miembro de la gerencia designada por el Ayuntamiento.

8.- PROIEKTUA EXEKUTATZEKO BEHAR DIREN BAIMENAK

Esleipendunak beharrezkoak diren gestioak egin beharko ditu, bai enpresa hornitzaileen bai administrazio eskudunen aurrean, Proiektua exekutatzeko beharrezkoak izango diren baimenak lortzeko. Nolanahi ere, eskabide formalak Udalak egin beharko ditu.

8.- AUTORIZACIONES PRECISAS PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO

La empresa adjudicataria deberá realizar las gestiones precisas, tanto ante empresas suministradoras, como Administraciones competentes, para la obtención de las autorizaciones que sean precisas para la ejecución del Proyecto, sin perjuicio de que las solicitudes formales sean cumplimentadas por el Ayuntamiento.

9.- BALIABIDE LAGUNGARRIAK ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Enpresa esleipendunak obrak, kontratuan adostutako epeen barruan, behar bezala exekutatzeko beharrezkoak diren makinak eta bitarteko lagungarriak jartzeko betebeharra izango du.

9.- MEDIOS AUXILIARES Y SEGURIDAD Y SALUD

La empresa adjudicataria queda obligada a aportar a las obras el equipo de maquinaria y medios auxiliares que sea preciso para la buena ejecución de aquellas en los plazos convenidos en el contrato.

Lan, bitarteko lagungarri, baliabide material eta laneko

Todos los trabajos, medios auxiliares y materiales, así

segurtasun eta osasun arloko unitate edo elementu guztiak, hau da, obraren edozein unitate behar bezala exekutatzeko eta bukatzeko beharrezkoak direnak, obraren prezioan sartuta daudela uste izango da, nahiz eta horiek guztiak berariaz ez ageri prezioen banakapenean edo deskribapenean.

como las unidades o elementos de seguridad y salud en el trabajo, que sean necesarios para la correcta ejecución y acabado de cualquier unidad de obra, se considerarán incluidos en el precio de la misma, aunque no figuren todos ellos especificados en la descomposición o descripción de los precios.

Obrei ekin aurretik, kontratista esleipendunak Segurtasun eta Osasun Plana egingo du, proiektuan aurreikusi den Segurtasunari eta Osasunari buruzko Azterketa oinarritzat hartuta, non Azterketan jasotako aurreikuspenak aztertu, garatu eta osatuko baitira. Plana exekutatuko den obraren jarduera zehatzei egokituko zaie, betiere, exekuzio sistema bera kontuan hartuta.

Previo al inicio de las obras el contratista adjudicatario elaborará un Plan de Seguridad y Salud en base al Estudio de Seguridad y Salud contemplado en el proyecto, que analice, estudie, desarrolle y complemente las previsiones contenidas en el Estudio, adecuándolo a las concretas actuaciones de obra a ejecutar y siempre en función de su propio sistema de ejecución.

Beste alde batetik, ez da inolako aparteko partidarik onartuko, obrari dagokion aurrekontu orokorrean sartuta ez dauden obrako materialak garraiatzeko eta sartu eta ateratzeko guneak egokitzeko; izan ere, uste da, horiek sartuta daudela, obra unitateei dagozkien aleko prezioen barruan.

Por otra parte, no se admitirá ninguna partida extra correspondiente a la habilitación de accesos, transporte y carga-descarga del material de obra, que no esté incluido en el presupuesto general de la obra, puesto que se considera que se encuentran englobados en los precios unitarios de las unidades de obra.

10.- OBRA ITXITURAK ETA OBRA SEINALEAK

Esleipendunaren ardura izango da obra behar bezala itxi eta seinaleztatzea; horretarako, seinaleztapena behar bezala egingo dela bermatuko duten baliabide materialak eta pertsonalak izan beharko ditu.

Ezin izango da obrako eremua erabat moztu trafikoa edo oinezkoak igarotzeko, eta, gutxienez, txandakako pasabidea bermatu beharko da.

Esleipenduna behartuta dago obra inguruko zirkulazioa (oinezkoa eta ibilgailuena) segurtasun baldintza egokietan mantentzera; hori dela-eta, arauzko neurriak hartu beharko dira seinale bertikalek edota horizontalek, informazio kartelek eta errotuluek, uneoro, oinezkoen, auto-gidarien eta obrako langileen segurtasuna berma dezaten. Halaber, bide segurtasuneko arrazoiak tarteko, obra ingurua garbi izateaz arduratuko da, baita galtzadak eta espaloiak garbi mantentzeaz ere.

Jarri beharreko trafiko seinaleak arauzkoak izango dira, eta horiek hiri ezaugarriak kontuan hartuta jarriko dira, eta halaber, obra guneak, kaltetutako bide zatiarekin alderatuta, duen kokapena kontuan harturik.

10.- CIERRES Y SEÑALIZACIÓN DE OBRA

Será responsabilidad del adjudicatario el correcto cierre y señalización de la obra; contando para ello con el material y el personal señalista, que garanticen la correcta materialización de la señalización.

No se podrá realizar el corte total de la zona de obra para el paso de trafico ni peatonal, debiéndose garantizar al menos el paso alterno.

El adjudicatario tiene la obligación de mantener la circulación rodada y peatonal de las inmediaciones de la obra en condiciones suficientes de seguridad, lo que exigirá la adopción de medidas reglamentarias de señalización vertical y/o horizontal, carteles informativos y rótulos indicadores que garanticen en todo momento la seguridad de los peatones, de los automovilistas y del propio personal de la obra. Así mismo se cuidará la limpieza de las calzadas y aceras por motivos de seguridad vial.

Las señales de tráfico a colocar serán las reglamentarias, ajustando su disposición a las características urbanas, así como a la localización de la zona de obras en relación con el tramo viario afectado.

Obrak direla eta, jarriko diren seinale eta errotuluak piktograma bidez egingo dira eta beharrezkoa dela ikusten denean, euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, berriz, euskaraz egingo dira, mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean. Aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, mezuak ele bietan egingo dira euskarari lehentasuna emanda, eta betiere, administrazioarekin aldez aurretik adostuta.

Los rótulos y señalizaciones que se coloquen con motivo de las obras, se harán mediante un pictograma. Cuando se estime necesario, el pictograma podrá ir acompañado de un texto explicativo en euskera. Si no resulta posible hacerlo mediante un pictograma, se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles. Si los dos casos anteriores no son posibles, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera, previa conformidad de la administración.